

HERNANIK kronika

2003 urtea
Abenduak 22
Astelehena
Alea: 971
www.kronika.net

Iñaki Lopetegi eta M^a Jesus Silvano irabazle Karbelgo krossean, atzo euritan

■ Eguraldi txarra eginagatik parte hartzaile asko izan zen kategoria guzietan ■ Iñaki Lopetegik 26:45eko denbora egin zuen ■ Eva Esnaolak 2garren egin zuen emakumezkoetan, 32:41eko denborarekin.

KARABELGO Belkara el-karteak eta Club Deportivo Hernanik antolatuta krossa izan zen atzo eta Iñaki Lopetegi pasaiarra eta M^a Jesus Silvano donostiarra izan ziren azkarrenak gizonezko eta emakumezkoetan. Mutiletan bigarren, Imanol Gonzalez donostiarra gelditu zen eta hirugarren, Joxan Kruz Matheos donostiarra. Nesketan bigarren, Eva Esnaola hernaniarra gelditu zen eta hirugarren Araia Perez Hon-darrabiakoa.

Goizean goizetik ari zuen euria, baina, jendea ez zen kikildu eta parte hartzaile mordoa izan da aurten ere. 8.300 metrotako proba zuten egitekoa, baina, pixka bat moztu egin zuten ibilbidean lokatza zegoelako.

Gazte eta beteranoak

Seniorren proba aurretik gainerako kategorietako korrikalari gazteak aritu ziren eta 600 metroko proba izan zuen hauek. **Benjamín mutilak:** 1) Beñat Gonzalez Irungoia; 2) Unai Etxegarai Irungoia; 3) Igor Mujika Aduna-



Nagusien mailako lasterketak irteteara, atzo Karabel auzoan.

ko. **Neskak:** 1) Maider Martin hernaniarra; 2) Ane Azkona donostiarra; 3) Nora Oruezabala hernaniarra. **Alebin mutilak:** 1) Borja Iturrade donostiarra; 2) Aitor Odriozola hernaniarra; 3) Ahieko Olabide hernaniarra. **Neskak:** Enara Agirrezabala hernaniarra; 2) Maddi Iradi

hernaniarra; 3) Izaro Auzmendi hernaniarra. **Infantil mutilak:** 1) Joxeba Lizeaga hernaniarra; 2) Iñaki Lopetegi irundarra; 3) Manex Pagola hernaniarra. **Neskak:** 1) Eider Aldabe hernaniarra; 2) Beatriz Morgado donostiarra; 3) Estibaliz Lion hernaniarra. **Kadete mutilak:** 1)

Julen Aldabe hernaniarra. **Neskak:** 1) Irene Muñoz hernaniarra eta 2) Maialen Alberro hernaniarra.

Beteranoetan, berriz, Arsenio Gonzalezek egin zuen aurrena gizonezkoetan eta Asuncion Hernandezek irabazi zuen emakumezkoetan. □

Eliza bete kantari

Gabon kontzertuan

KANTUZ abesbatzak antolatuta kontzertua izan zen joan den larunbatean Parrokian. Ikastoleako umeak, Musika Eskola-koak, Parrokiko korua eta Kantuz Abesbatzak kantatu zituzten Gabon kantak. Elizan jende asko bildu zen entzutera eta kantuan ere 400 bat lagun inguru aritu ziren. Argazkian kontzertuko azken kanta, talde guztiak batean kantatu zutena. □



J&T-k Eguberri
jai zoriontsuak
opa dizkizue

Kale Nagusia, 9 HERNANI 943 330 582

ONDOJAN (Antziola rekta hasieran)
ERAMATEKO JANA: Oiasko erreak
enkarguz, etxeko sukaldaritzar,
prestatutako janaria, txarkuteria,...
IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK

ondojan

Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani

Eska ezazu
**HERNANIKO
BERRIAK
TXARTELA**

HERNANIKO
BERRIAK

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

eta eraman aterki
bat **OPARI**.

Gabonetan ere, egin
zure erosketak Hernanin.



Olentzero, hogeitaka urte baserriz baserri

OLENTZERO bat baino gehiago ateratzen da gaur egun kale Hernanin, baina, bada bat baserriz baserri joaten dena eta ez da gaur goizeko. Harriburni inguruan sortua da 70garreneko hamarkadan eta geroztik urtero atera izan dira Osiñaga inguruko baserrietara. Arnasa Kon-darrak koadrilak eta Euskara Taldeak eutsi izan dio urtetan eta egun, koadrilakideak eta horien seme-alabak ere joaten dira errondara eta beste zenbait herniar erabili ere bai, Doberak antolatuta.

Soinua eta bertsoak

Trikitixa eta bertsolariz lagunduta joaten da koadrila. Anatz bertsolaria ia hasiera hasieratik



Olentzeroa eta koadrila, orain urte mordoska bat.

ateratzen da eta makina bat saio egina da Elorribin, Iparragirren, Andolan... eta bertsotan erantzun ere egiten diote zenzaibetan, Aterpe baserrian adibidez.

Aurten ere usadioari eutsi

nahi dionak aukera izango du datorren asteazkenean. Zita 15:00etan da Plazan eta Karabel eta Zikuñaga aldetik Osiñagako baserrietara egingo dute ibilbidea. □

KIROLA

FUTBOLA	Taldeak	Non
Gorengoen taldea	Hernani Aretabala	1-4
Emakum akum ezkoen liga	Dunboa-Hernani	2-3
Gazteen Euskalliga	Gemka-Hernani	1-1
Gazteen 1m aila	Zum aikoa-Hernani	0-10
Haurren 1m aila	Hernani-Santo Tom as	0-10
Alebinak	Zum aikoa-Hernani	2-2

ERRUGBYA	Dumago-Hernani	25-10
Jubenilen Euskalliga	Hernani-Zarautz	62-0
Kadeteen Euskalliga	Durango-Hernani	0-41

BOLEIBOLA	Hernani-Berazi	3-0
Mutilak		

ASTEBURUKO EMAITZAK

PELOTA	Gipuzkoako Txapelketa
Infantilak	Lazkano-Ametia/Unitea
Infantilak	Gamendia-OtaegiA lezama
Kadeteak	Ojuela Ispartar/Bermepe
Jubenilak	Ezeiza IIa negri/Lazkao
Jubenilak	Zum aikoa/Ezeiza-Zunutza
Nagusiek	Sarasua-San Sebastián Aretabala
Nagusiek	Manzanaflor-Martinez/Kuku

SASKIA LOIA	Kadeteak
	Iaungo-Hernani

JASOTA BEZALA

Olentzeroa dator

Laster abenduaren 24a izango da, Olentzeroa Euskal Herriko herri guztietaira iritsiko den eguna. Duela urte batzuk Hernaniko talde ezberdinak Gudarien Enparantzan ongi etorria ematen diote, pertsonaia goren honek ongi merezi duen agurra; segidan, herriko kaleetan zehar ibilbidea burutzen duelarik.

Hala ere gertaera honetan "huts" bat ekoizten ari da. Urte batzuk ba dira Hernaniko Udal Banda gonbidatua izaten dela eta eezko erantzuna ematen duela beti. Batzueta eman dako arrazoia: abenduaren 24a laboral eguna dela eta ondorioz, Banda-kideek lana egin behar dutela. Hau ez da egia. Izan ere 2000ko Eguberria igandea zen... baina, gonbidapenari uko borobilan eman zioten. Iaz, Eezkoia sustraitzeko ondoño arrazonamendua izan zen: Bandak urtero egiten duen egutegiaren barruan aurreikusten diren ekintzetan soilik hartzen duela parte eta, ekitaldi hau bertan ez dagoenez, parte hartza ez dutela egoki baloratzen. Urteak ba dira Olentzeroan parte

Jon Oñate Lizarralde

Esker onez

Kontrataren oztopoa gainditu dugu 2004rako. Hernaniko Zaharren egoitzan egingo dugu lana urte bete

gehago. Inoiz ez gera bakarrik egon, aurre egin dugu, jende askoren laguntzari esker: Gure Lankide finkei (gehiengoa). LABeri, babesa eman digun sindikatu bakarra. Egoitzako zaharrei eta beren senideei. Hernaniko herriari. Hitz batez, bere Elkartasun eta laguntza eman diguten pertsona guztiei:

Bihotz bihotzetik Eskerrik Askó

Luixi Cueli

Zaharren egoitzako 39 langile ebentualen izenean



Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564 - HERNANI

HITZ BITAN

ATLETISMOA

Erroizenea 3garren. Pista estaliko Gipuzkoako Txapelketak jokatu ziren larunbatean Donostia Belodromoan eta Nora Erroizenea hernaniarrak 3garren egin zuen 60 metrotan, kadete mailan. Erroizeneaz gain hernaniar gehiago ere izan ziren proba eta modalitate desberdinatetan, Gipuzkoako Txapelketetan.



Nora Erroizenea.

IPUI KONTALARIA

Ipuiak gaur liburutegian. Lur Korta ipui kontalaria ariko da gaur Biterin. 11:00etan 3-4 urteko umeentzat eta 11:30etan, 5-7 urte artekoentzat.

BERRIAK ELKARTEA

Tabernarien bilera gaur. BERRIAK elkarrekin tabernarien bilera deitu du gaur, arratsaldeko 16:00etan Deportibo tabernan. □

† MARIA NIEVES ETXENIKE ARANBURU

Andrea

(Agustin Frailearen alarguna)

Atzo hil zen 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita

Santuaren bedeinkapena hartu ondoren

-Goian bego-



Haren seme-alabak: Agustín eta Begoña Kijera, Edurne (Angel Perezzen alarguna), Manuel eta Lourdes Igoa eta Rakel eta Juan Ramón Galdeano; bilobak: Arkaitz, Iñaki, Ane, Jon eta Maialen; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan, egingo den hilaretan. Aldez aurrelik, mila esker.

Hernanin, 2003ko abenduaren 22an

Helbidea: Juan de Urbieta, 17 - 4º B.

Oharra: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIO BERRIAN (Polikiroldegiaaren ondoan) egongo da asteluhenean eguerdiko ordubata arte.

IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da Sorgintxulo auzoan. Interesatuek deitu: 943 55 19 56 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera deitu).

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

■ Taxiak:

943 550093

■ Udaltzaingoa:

943 33288

■ DYA:

943 464622

■ Anbulatorioa:

943 006666

■ Jokalari anonimoak:

943 331103

FARMAZIAK

ASTELEHENA

■ Egunez: Bilbao-Sag. Urbia 7

☎ 943 552941

ASTEARTEA

■ Egunez: Gomez Justel Kale Nagusia 14

☎ 943 554892

■ Gauez: Gil

Lasarte. Nagusia 24

☎ 943 361529

Telemar

Itxastele, S.L

Eskaintza berezia:
PACK TELEFONICA

errekargako
150 eurorekin

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berriitu ditu bere instalazioak eta inauguratza dioja. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealekua, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia